D.º 3.º de Cuaresma.

Gaurco Evangelio Santuban ecusten dogu, N. C. Jesuxto, guizon triste baten gorputceti Demonioa botatcen. Etrai onec eucan guizon triste ha estadu guztiz negargarrian, loturic eutzan gorputceco sentiduric principalenac, au da miña, beguiac ta belarriac, alaco moduz ece, arquitcen zan mututuric, ichuturic, eta gorturic; baña gure Jesus maitagarriac errruquituric guizon onen mise riaz, querdu eutzan Demonioari guizon onen gañean eucan poderioa, eta beriala mutubac verba eguin eben.

Guizon triste au mututuric egotea, edo onen estadu tris tea da, N. C. Penitenciaco Sacramentuban euren pecatuac lotzaz confesatu bague mututuric gueldicen diran estaduaren ymagiña edo figura bat. eta guchi topatcen badira ere, Demonioaren virtutez gorputceco miña lotuta dauquenac, ascota arro topatcen dira, Demo nioac armatcen dituan arte ta mañaguin, animaco miña lotuta dauquenac. Mutu espiritual onec baño gauza ugariagoric eztà icusten gaurco egunean, batezere dempora onetan, ceñean aguintcen deutsun eliza Ama Santiac verba eguin daguiegula bere ministroai gueure concienciaren probechuraco, au da confesatu daiguzala gure pecatu guztiac bere ministroen oñetan lotzar bateze ichigabe; eta ala ere cembat aldiz obligacio oni faltatcen jaco? ascoz gueiago dagoz catigu ynfernuco atzamarretan pecatu onegaiti, beste edocein peca tugaiti baño: Cegaitic, nola lenengotic pecatuari juntatu jacon impenitencia, edo penitencia eza, ala alde onetatic datozco

Demoniòari impenitente guztien Jabe izatea. Eztago etzai orentzat gauza ipiñin agoric ta gorrotogarriagoric pecatuac ondo confesatzia baño. etzai onec eztitu ecentatic gueiago opari tatcen bere mendeco diranac pecatuen confesioti baño. Oneta rdaco betetcen ditu lotza falso ta galgarri batez, ta lotza onec eragotzen deuste confesatcea, lenago eurac eguiteco zorigaistoan lotzatu etciranac. Modu onetan beragañatcen ditu anima triste arco, escutatu eraguiten deustela dempora pusca batean, eternidade guztian aguertunic egongo dana, baña escutatunic egongo zana, bere demporan aguertu balic. Onec dira Diabruaren mutubac edo Diabruac mututcen dituban anac. Onegac ez baca aric eragotzen deuste pecatari tristeai, logratcea euren pecatuen parcacioa, ezpada indartcen ditu ere euren costumbre edo ostuma gaistoetan, ta egoztcen ditu pecatuco estaduban; o! Zorigaistoco lotza, aimbeste eriotza anima tristetan eguiten dituzana. Agai tic edergui esan eben Sn Agustinec, Enemigoac lazo bi euca la, oietan pecatariari jausi eraguiteco; bata engañatceco confianza falso bategaz, pecatu eraguiten deutzanian, ta bestia, bildurrezco edo lotzasco lazoa, eguindacoa confesatcea eragozten deutzanean. Gaur bada N, C. atera guna nunque zuben biotzetatic echurritasun triste au, confesatu daguizuben osoro pecatu gustiac, lotzaz ta bildurrez batere ichigabe. eta antanaia Cein gurutrrescaoa, ta funda mentu bagueeroa dan lotza au aditcera emongo deutzubet.

Ezagutunic gugaitic guizon eguin, ta bere odol gustia curuca batean irruri eben Jaincoac gure argaltasuna, ezagutunic Bautismo Santuaren virtutez emon jacun gracia galdunic, lasten quiño pecatuaren arpian gueldituco guiniala, ichi eusun

estadu onetatic urtetceco erremedio erraz bat, ceña dan Peniten
ciaco Sacramentu Santuba, onen virtutez garbitceco pecatuac,
gure animetan eguindaco loiac. Ychi edo eguin cben Sacramentu
santu au, araco illen artetic virtu, ta bilduraz Apostolubac
alcarregaz egocen demporan, aguertu jatemian dempora artan
esanagaz; baguia izan dedilla zubequin, nere Aitac guizo
nac jurgatceco potestadea emon eustan leguez, nic ere zubai
emoten deutzubet guizonac jurgatceco escubidea. Ta bere arnasa Tain
coac emonagaz, esan eusten: artu eguizube Espiritu Santua,
zuec parcatcen dituzuben pecatubac, parcaturic gueldituco dira,
ta zuec parcatcen eztituzubenac, gueldituco dira parcatu gabe.
Ona N. C. ce modutan emon eusten Jesusec Apostolubai, ta
aien ondorengo guztiai pecatuen sentencia edo absolucioa emo
teco escuvidea ta potestadea; ona nola ichi euscun batizau ezque
ro eguindaco pecatuen loiac garbitceco iturri ederra; Baña
ay! N. C. cembat ete duaz iturri onetara euren loiac garbitcera,
ta viurtcen dira len baño loiago ta ciquiñago? Ta cegaitic?
Menturaz Penitenciaco Sacramentuaren virtuteaaren faltaz?
ez N. C. espada gure faltaz: Barrucoac Confesioniai lotzaz ichia
mediante. Baña o! ce zoraqueria guizonena! Cein ondo dio
Espiritu Santuac, ecin conta ala dirala mundu onetaco zoroac,
Cegaitic ezaguturic, etsaiac deuscun gorrotoa, ta gure onaren
ecin icusia, ezaguturic eztabela galtcen presentatcen jacon
ocasioric gure animac infernuco su-garretara botatceco,
ezaguturic, etsaiac bialtcen deuscun tentacioac eztirala guri
Cerruco videa galdu eraitceco, paratcen deuscun lazo batzuc

baño; ala ere egun arguitan, ta bequiac zabalic jausten gara lazo orietan! Ta zoraqueria andi bat bada, guizon bat jatea, etsaiac beretzat paraturic daucan lazo ta trampetara, ezta guchiago izango lazo ta trampa aetan eusaegan bera ittzera datozren etsaiari, indar pusca bat, edo neque pusca bat ez eguiteagaitic ichaitia, ta icusico bazenbe modu onetaco gui zon bat, ceñec indar pusca bat ez eguiteagaitic jausten dala etsaien escuetan, esango cenguie, guizon ha burutic galduta dagoala, ta berac gura izanda, galtcen davela bere viciza: Au guztiau guertatcen da pecatariaz ere, ezagutcen dan pe catariac, tentacioac dirala, etsaiac, gure inocencia galtcero, paraturic daucan beste aimbeste lazo, ta au daguiala, berac bere burua lazo ta sare artan sartcen dan, tentacioari leku emon, ta pecatu eguinaz, ezagutcen ere dan lazo aiec pus catu ta etsaien artetic bere burua libratceco, eztagoala beste erremedioric, damutasun, ta proposito eguiazco bategaz confesio on bat eguitea baño, eta ala ere guraago dau mundu onetan bere conciencia gaistoco arraz emoten deutcen gues queen artean larri, ta tristeturic vici. Azquenic badaqui, betico condenatcen dala, baldin confesio on baten videz quent cen ezpadau betza zorigaisto ha, ta ala atceratcen da. Orain bada arqui diteque au baño zoraqueria andiagoric? Istzati zorigaistocoac, ain guchi estimatcen dituzuba cenben animac? eztaquizube pecatuac oraro ta dirian leguez confesatcen ezpa dituzube, Ynfernuco videan zagocela? eztaquizube, eztagoala cezuben arpian beste erremedioric, confesatcea, edo conde natcea baño? o etsai madaricatua! eta cembat anima triste

lotzarco larraren videz darraazun infernuco ondarreza! Ce egui andia dio Sn Juan Chrisostomoc, Jaincoac santci ebela peca tua lotziar, gue lotzaturic eguin ez gueijan, ta confesioa santci ebela confianzaiaz, gu guae utz eguiteac confesatcera animatu guintecen; baña ezaguturic etsaiac, emendic guri etorquigun interes andia, trucatu euzten soñeco edo janciac: santci eben pecatua confianzaiaz, ta confesioa lotziaz, eguindaco pecatu, ta utz eguiteac confesatu ez gueijan: ta eguiaz, cembat persona edade, ta estadu guztietacoac arti maiña oneiguin engañatceen eztitu. Nundic dator, dio Sn Juan Chrisostomoc, pecatu eguiteco lotzaric ez izatea, ta pecatu eguindacoa confesatceco lotza, ta bildurra izatea? Lotza ta bildurrik ez euquitea, bere anima llagaz betetceco, ta llagac sendatceco, bildurtu ta lotzatcea, Sn Aguzti nec dioan leguez! Ce zoraqueria andiagoric, deadan eguitendan Sn Ambrosioc; ce ichutasun andiagoric gure animac loitzeco lotzaric ez euquitea, ta guero garbitceco lotzatcea? Baña ó zorigaiztoco lotza! Ta cere lotzatcen zaube, pecatari tristeac? Menturaz confesoreac? Ez N, C. ez pensatu deshonrratuac guel dico zarela zuen garbitasuneco falta, ta argaltasunac confeso reari esanagaitic, cegaiti zuben pecatuac izango dira, Sacerdo te hac confesore dan dempora guztian bear bada aditu dituan pecaturic chiguienac: Menturaz orduan Jaincoaren lotza zara? Ezta ere N, C. cegaitic zubec duin ondo daqui Jaincoac zuben pecatuac, ta guztioc daquizuben leguez, eztau Jaincoac beste gauzaric gura, confesio on baten videz berogana biurtu, ta adisquidetasunac eguitea baño. Ah! Jauna esango deutt bearbada norbaitec, nic inu edo lau confesaturic banenco, errar

gañerocoac confesatuco nituque, baña aiec atceratcen naube; asco aldiz ibilli naiz, ezagutcen ez nauben toquiren batera joateco asmuaz, nere pecatuac confesatcera, ecin sufrituric concienciaren gaistoaren arrac eguiten eusten ozcadac, baña nola nere pecatuac diran ain andiac eta ichusiac, ez naz atrevitcen. Baña esan eguidazu, pecatari tristea; Ce asmu daucazu? ill baño lenago ondo confesatceco, edo erabagui dozu gorputz ta anima Infernura joatea? Bada beste erre medioric eztaucazu, edo ondo confesadu, edo condenadu. Baña ezdu pecataria, andi ta ichusiac dirala, diozu zure pecatuac? Cer eguindozu bada? Esan dituzu maldicinoren batzuc Jaincoaren contra, edo artu deutzazu Jesuskristori gorroto ecin da gueiagoco ren bat, poztu zara Jesus Judeguac ill eubelaco? Personaren bat illdozu, edo luxuriaco pecaturen bat eguin ondoren bota dozu aurra edo illdozu, iñoce jaquin eztaguian? Edo cer eguindozu? Eguindozu Diabruaz tratuaren bat, edo entrega tu deutzazu señaleren bategaz zure anima? Eguindozu onegaz pecaturen bat, edo animaliaquin onelaco pecaturen bat, edo oneic gustioc eguin badituzu ere eztau batere importatcen; eztozu cer icaratu, ez pensatu ere confesoria oiec gustioc adit cean icaratuco dala, edo onelacoen contra emongo dauela.

Egui au nola gura aditcera emongo deuscu Sr Luis Beltra negaz guertatu zanac. Allegatu zan guizon galdu, ta gazquilla famatu bat santu [redacted] onen oñetara, dempora artan esanaz: Aita, confesatceaz meserdia eguin beit. Jarri zan santuba con fesonarian, ta icustean, penitentiac ain oso ta garbiro bere

pecatuac confesatu, ta bere viotzico bartez gustiac aguertu eutza
la, ain andia izan zan onetatic bere viotzean sartu jaron Consu
eloa, ece ecin disimulaturic bere barrenean, arpeguico argui
tasunean aditcera emoten eban bere atzeguintasuna. Penitentiac
ecusi ebenian modu onetan bere Confesorea, esan eutzan: Jauna,
nere vici gustico pecatuac esan ditudan ezquero, orain puntuan
eguin dodan pecatu bat aditu bear deust; ta da ecustean bere
oren arpeguico arguitasuna, aditcean, nic lotzaric ascogaz
esan ditudan pecatuac, juicioa eguin dot, beroni ere nere gueva
coren bat izango dala; orduban Santuac, bere arpeguico argui
tasuna gueitubaz, esan eutzan; eguia da, nere seme maitea,
neu ere pecataria nacela, ta orain esan dituzun pecatuetan jausi
ezbanaz, Jaincoanen ontasun ta graciari ezquerrac, ta ez nere
indarrari; baña eztezu cer icaratu, nic zure pecatuac adituta
poztu ta alegratceaz; cegaitic? nola alegraturic ez naz Demonio
aren atzamarretatic libraturic, Jaincoanen gracia ta adisqui
detasunera viurtcen zaniala? Nola alegraturic ez naz zure
Combersioan dedan partea ecusiric, tam bañ baño lenago illtcen bazara,
Jaincoari nigaitic erruguitcen asico zaniala pensaturic? Eguia
da, ez gara Confesore gustioc Sn Luis Beltran lacoac, baña bere
espiritu ta Santutasuna espadogu ere, daucagu bere jaquituriaren
parteenbat, ta ala ezaguteen dogu, eztala iñon icaratu bear beste
ren pecatuaz: Cegaitic? Nor icaraguetan da, Cristalezco baso
bat jausi ta auscteaz? Beste onen beste? nor icaraturic da, izanic
gure izate edo naturaleza ain auscorra, bere obra gustietan aguertuaz,
etzaitece, bada, engañatu nere C. Estago beste erremedioric:

Alperric eguingo dozube, santu guztiac eguin euben penitencia; alpe rric eguingo dozube Santubac adina oracio Caridade ta limosna, oneic guztioc alperrac izango dira, baldin damu eguiazco bate gaz pecatu guztiac confesatcen ezpadituzube, erremedio bague condenatcen zare; edo confesatu edo condenatu. Ta iñoiz pe catuac confesatceco asmuric badozube? cegaitic ez orain? ezta quizube confesio ta comunio gaiztoaquin zuben pecatubac gueitcen diran leguez, lotza ere gueituaz doiala? Onegaz gañera: Norc esan deutzube, elduco zarela zubec ustedozuben demporara? Norc esan deutzube supitoan edo bat batetan illic gueldituco etzarela? Alboco min zorrotz ta estu batec etzaube ta verba gabe ichico? eta dempora izanda ere; eztaquizube, gueroco edo eriotzaco instante hâ len izabacia galtceco obia dala, berriro izabarteco baño? Nola orduban aimberte oñatzen artean, aimberte neguen artean zuben vici guztico examina eguin ta ondo confesatuco zare? Etzaitecela engañatu N.F. atera eguizube, etsaiac sartcen deutzuben bildur, ta lotza ori; ta confesatu eguizube confianza osoaz, mundua mundu dane tic oraingaino eguin diran pecaturic andienac badira ere. Baña! Onere Jauna ta Jaincoa! Zure escuetan dagoz gure viotzac: zuc daquizu, arriric gogorrenetatic Abranen se meac ateratcen; zugana gatoz, ta zuri escatcen deutsut desterratu ta bota daguizula nere aditzallen viotzetatic, etsai gaiztoac sartu deusten bildur ta lotza madaricatua: Curcean gugaiti izuli ceben odol preciosoagaitic escatcen deutzut, libra daguizula etsaiaren atzamarretatic, cerorri aimberte costata gnosi edo redimituric daucazun

anima tristeac. Gracia au ixichita osango deutzut Erregue Profetagaz, bera leguez amorio ta agradecimentuz beteric: ifini neben, Jauna, nere gaistaguenia gustien confesetaco cuidaduba, eguin neben albait contu ta garbitaunic andie naz, ta zuc parcatu ceustan nere pecatuaren gaistaguenia ta malicia. Barcacioa bada Jauna ta misericordia nun du onetan ta bestean seculaco gloria. Amen.

MAN 681
FUNDACION SANCHO EL SABIO FUNDAZIOA